


EAE

Euskararen aurrekontuei begirako hainbat proposamen



The image shows a close-up of a financial budget table. The table has several columns and rows of numerical data. The text on the left side of the table is partially visible and includes the following items:

- 1. Euskararen aurrekontua
- 2. Euskararen aurrekontua
- 3. Euskararen aurrekontua
- 4. Euskararen aurrekontua
- 5. Euskararen aurrekontua
- 6. Euskararen aurrekontua
- 7. Euskararen aurrekontua
- 8. Euskararen aurrekontua
- 9. Euskararen aurrekontua
- 10. Euskararen aurrekontua
- 11. Euskararen aurrekontua
- 12. Euskararen aurrekontua
- 13. Euskararen aurrekontua
- 14. Euskararen aurrekontua
- 15. Euskararen aurrekontua
- 16. Euskararen aurrekontua
- 17. Euskararen aurrekontua
- 18. Euskararen aurrekontua
- 19. Euskararen aurrekontua
- 20. Euskararen aurrekontua
- 21. Euskararen aurrekontua
- 22. Euskararen aurrekontua
- 23. Euskararen aurrekontua
- 24. Euskararen aurrekontua
- 25. Euskararen aurrekontua
- 26. Euskararen aurrekontua
- 27. Euskararen aurrekontua
- 28. Euskararen aurrekontua
- 29. Euskararen aurrekontua
- 30. Euskararen aurrekontua
- 31. Euskararen aurrekontua
- 32. Euskararen aurrekontua
- 33. Euskararen aurrekontua
- 34. Euskararen aurrekontua
- 35. Euskararen aurrekontua
- 36. Euskararen aurrekontua
- 37. Euskararen aurrekontua
- 38. Euskararen aurrekontua
- 39. Euskararen aurrekontua
- 40. Euskararen aurrekontua
- 41. Euskararen aurrekontua
- 42. Euskararen aurrekontua
- 43. Euskararen aurrekontua
- 44. Euskararen aurrekontua
- 45. Euskararen aurrekontua
- 46. Euskararen aurrekontua
- 47. Euskararen aurrekontua
- 48. Euskararen aurrekontua
- 49. Euskararen aurrekontua
- 50. Euskararen aurrekontua
- 51. Euskararen aurrekontua
- 52. Euskararen aurrekontua
- 53. Euskararen aurrekontua
- 54. Euskararen aurrekontua
- 55. Euskararen aurrekontua
- 56. Euskararen aurrekontua
- 57. Euskararen aurrekontua
- 58. Euskararen aurrekontua
- 59. Euskararen aurrekontua
- 60. Euskararen aurrekontua
- 61. Euskararen aurrekontua
- 62. Euskararen aurrekontua
- 63. Euskararen aurrekontua
- 64. Euskararen aurrekontua
- 65. Euskararen aurrekontua
- 66. Euskararen aurrekontua
- 67. Euskararen aurrekontua
- 68. Euskararen aurrekontua
- 69. Euskararen aurrekontua
- 70. Euskararen aurrekontua
- 71. Euskararen aurrekontua
- 72. Euskararen aurrekontua
- 73. Euskararen aurrekontua
- 74. Euskararen aurrekontua
- 75. Euskararen aurrekontua
- 76. Euskararen aurrekontua
- 77. Euskararen aurrekontua
- 78. Euskararen aurrekontua
- 79. Euskararen aurrekontua
- 80. Euskararen aurrekontua
- 81. Euskararen aurrekontua
- 82. Euskararen aurrekontua
- 83. Euskararen aurrekontua
- 84. Euskararen aurrekontua
- 85. Euskararen aurrekontua
- 86. Euskararen aurrekontua
- 87. Euskararen aurrekontua
- 88. Euskararen aurrekontua
- 89. Euskararen aurrekontua
- 90. Euskararen aurrekontua
- 91. Euskararen aurrekontua
- 92. Euskararen aurrekontua
- 93. Euskararen aurrekontua
- 94. Euskararen aurrekontua
- 95. Euskararen aurrekontua
- 96. Euskararen aurrekontua
- 97. Euskararen aurrekontua
- 98. Euskararen aurrekontua
- 99. Euskararen aurrekontua
- 100. Euskararen aurrekontua

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua

Euskararen normalizazioari behar den bultzada emateko neurri sorta.

Euskararen normalizazioari behar duen bultzada emateko lau alor nagusitan egin behar da aurrera. Alde batetik, euskararen aldeko herri gogoia indartu beharra dago, bigarrenaz, arkitektura juridikoaren egokitzapena behar da arauak gaurkotzeko eta hutsuneak betetzeko, hirugarrenaz, plangintza eragingarriak abiatu behar dira helburu eta epe zehatzak dituztela eta azkenik, diru-inbertsioak handitu behar dira. Lau norabide horietan aurrerapen nabarmenak egin gabe ez da erraza izango euskararen normalizazio prozesuaren bizkortzea.

Gauzak horrela, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak aurrekontuen aurrean hausnarketa zabal bat konpartitu nahiko luke eragile politiko eta sozialekin. Kontseiluaren asmoa, bere sorreratik bertatik, proposamen eraikitzaileak egitea izan da eta hau ere, horrela ulertu behar da.

Proposamenok, izaera eta maila desberdinekoak dira, orokorrak eta zehatzak. Bertan, ordena mailako proposamenak aurkituko dituzue, diru-sail berriak sortzea proposatuz edota euskararen normalizazioaren zehar-lerrotasuna bermatzeko helburuz sortutako programa berriak. Aurrekontuen inguruko eztabaida ez da zenbat gastatzen den bakarrik, nola gastatzen den, zertan gastatzen den eta gastua bera nola ordenatzen den ere eztabaida interesgarriak dira. Bestalde, zenbateko orientatiboak eskaintzera ere ausartu gara. Jakin badakigu aurrekontuak politika egiteko bidea direla. Zertan gastatzen den eta zertan ez erabakitzea politika egiteko modua da. Hizkuntza-politikak beraz, eztabaida horri aurre egin behar dio eta zilegi da Kontseiluarentzat gastuaren banaketaz iritzia plazaratzea. Azkenik, hizkuntza baten normalizazioaz ari garenean gauza jakina da ez dela dena diruz egiten. Arauak ere bere pisua eta indarra du eta hori baliatzen jakin behar da. POLITIKA inbertsioz eta arauz egiten da, politika oro egiten da inbertsioz eta arauz, hizkuntza-politika, beraz ez da salbuespena. Ondorioz, sail bakoitzean arauaren beharra ikusten badugu hori ere eskaintzen dugu lagungarria izan daitekeelakoan.

Garrantzi handikoa da jakitea proposamen honek dituen iturriak eta oinarriak Kontseiluak berak urte hauetan guztietan sortu eta hedatu dituen dokumentuetan aurki daitezkeela. Beste batzuen artean, hizkuntza-politika berri eragingarria definitzen duen dokumentua, Eusko Jaurlaritzaren Euskara Sustatzeko Ekintza Planari Kontseiluak egin zion osoko zuzenketa eta "io nagusiak" izenez ezagutzen dena non euskararen normalizazioa bizkortzeko berehalakoan hartu beharreko neurriak xehetzen diren. Dokumentu horiek proposatzen dutenaren isla ekonomikoa da aurkituko duzuen proposamen honetan.

Azkenik, ekarpen zehatzen alorrean, %2 kalkulatzeko 2014an aurkeztu den aurrekontu proiektua hartu dugu oinarritzat. Proposamen horretan osotara 10.215.500.000 € aurreikusi ziren. Beraz, 204.310.000 €ko aurrekontua hartu dugu kontuan.

Euskararen aurrekontuak hobetzeko proposamen orokorrak

1.- Euskararen aurrekontuek aurrekontu osoaren %2 gainditu behar dute egokiak izateko. 2008an Eusko Jaurlaritzaren aginduz “Siadeco” enpresak euskararen sustapenerako erabilitako aurrekontu publikoen, dirulaguntzen eta giza baliabideen ikerlana egin zuen. Bertan, administrazio desberdinek euskararen sustapenaren alde egindako gastua ikertzen da eta honako hauek izan ziren emaitzak aurrekontuen kopuru osoa euskararen sustapenean inbertitzen denarekin alderatzen dugunean:

| ADMINISTRAZIOA | AURREKONTU OSOAREKIKO GASTUA |
|-----------------------------------|------------------------------|
| 5.000 biztanlez gorako udalerriak | % 2,6 |
| Eusko Jaurlaritza | % 1,4 |
| EAEko hiriburuak | % 0,69 |
| Foru Aldundiak | % 0,66 |

Ikusten denez, 5.000 biztanlez gorako udalerriak dira %2aren muga gainditzen duten bakarrak (% 2,6). Gogoan izan 2008az ari garela, hau da, pairatzen ari garen krisi latzaren lehen urteaz. Beraz, pentsatzekoa da datuek ez dutela hobetzera jo.

Horren harira, Eusko Jaurlaritzaren gastua aztertzen badugu perspektibaz “Euskararen sustapena” kontzeptuarekiko bilakaera zein izan den ikus dezakegu. Garbi ikusiko dugu 2008tik aurrera etengabe egiten duela behera ehunekoak. Hona hemen datuak:

Iturria: Gara egunkaria

| Urtea | Euskararen sustapena | Aurrekontu osoa | Ehunekoa |
|-------|----------------------|---------------------|----------|
| 2004 | € 87.960.168,00 | € 6.661.621.000,00 | 1,32 |
| 2005 | € 91.698.000,00 | € 7.117.102.000,00 | 1,29 |
| 2006 | € 106.958.500,00 | € 7.623.134.200,00 | 1,4 |
| 2007 | € 114.475.200,00 | € 8.740.181.000,00 | 1,31 |
| 2008 | € 119.085.400,00 | € 9.939.662.000,00 | 1,2 |
| 2009 | € 125.831.000,00 | € 10.487.458.000,00 | 1,2 |
| 2010 | € 118.360.400,00 | € 10.315.210.000,00 | 1,15 |
| 2011 | € 115.515.000,00 | € 10.549.489.000,00 | 1,1 |
| 2012 | € 110.040.000,00 | € 10.449.167.000,00 | 1,05 |
| 2013 | € 99.926.900,00 | € 9.316.657.000,00 | 1,07 |
| 2014 | € 102.219.900,00 | € 10.215.506.000,00 | 1 |

Konturatuko gara 2008 urteari dagokionez, Gararen taulan agertzen den portzentaia txikiagoa dela Siadecoren taulan agertzen dena baino. Arrazoa da Sidecok gastu osoa aztertu duela eta Garak aurrekontuetan "Euskararen sustapena" kontzeptupean agertzen dena bakarrik, kopuru txikiagoa, alegia.

2.- Euskararen normalizazioaren gaiak dituen berezko ezaugarriengatik zehar-lerro izaera du. Hizkuntza-politika beti dago, saihestuezina da. Euskararen alde egiten denean hizkuntza-politika dago eta egiten ez denean ere, hizkuntza-politika egiten dugu. Beraz, Gobernu batek bere sail guztiek euskararen aldeko hizkuntza-politika egiten dutela bermatu behar du. Horretarako biderik eragingarriena Lehendakariordetza berezitu bat sortzea litzateke. Izan ere, bertatik errazagoa da gainerako sailetan eragitea. Gobernuaren arkitektura organizatiboaren gailurrean kokatu beharra dago euskararen normalizazioa zuzendu behar duen saila.

3.- Sail guztiek, salbuespenik gabe euskalduntzea bermatuko duen programa eduki behar dute. Hezkuntza Saila izan da urte askotan "Hezkuntza sistemaren euskalduntzea" izeneko programa eduki duen bakarra (4715 programa). Sail horretan egin dira euskararen normalizazioaren ikuspuntutik aurrerapenik nabarmenenak eta neurri handi batez kontuan hartzeko eredia da beste sail batzuetarako. Osasunak, segurtasunak, justiziak, kulturak... sail den denek beren programa propioa izan behar dute bai barne euskalduntzea bermatzeko bai eta beren ardurapeko kanpo euskalduntzea bermatzeko ere. Programa horrek, hizkuntza-politika eragingarria garatzeko aukera eman behar dio sailari.

4.- Aurrekontuek hizkuntza-komunitatea bere osoan hartu behar dute kontuan. Alde batetik, Euskal Herria zatitzen duten gainerako administrazioekin elkarlan estua bilatu behar dute hizkuntza-komunitatearen indarra alferrik ez xahutzeko eta bestaldetik, euskararen normalizazioak EAEko mugetatik kanpo dituen zailtasunak oso kontuan hartuta, baliabideak eskainiko dira euskararen normalizazio prozesuak eten geografikorik eduki ez dezan.

5.- Euskararen normalizazioak badu osagai geografiko garrantzitsua, ez bakarrik funtzionala. Euskal Herriak arnasmuneak hedatuz lortuko du bere hizkuntzaren normalizazioa. Galerak ikuspegi geografikoa izan duen bezalaxe, berreskurapenak ere logika geografikoa du. Horregatik, arnasmuneak babestea eta horiek hedatzeko politika estrategikoa da. Lehen mailako helburua da arnasmuneen babesa eta hedapena. Horren harira aurrekontuek, beren sail guztietan kontuan hartu behar dute hori. Bestalde, babes juridiko egokia eraiki behar da arnasmuneak babesteko eta haien hedapena bermatzeko.

6.- Hizkuntza-politika politika planifikatua da. Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzako sail guztiek helburu zehatzak, epe zehatzak eta ebaluazio sistema duten 2 plangintza izan behar dituzte indarrean. Lehena, barne euskalduntzea bizkortzeko, herritarrei arreta integrala eskainiko dien zirkuitua sortzeko eta langileek lana euskaraz noiz egingo duten data zehaztuko duena. Bigarrena, sailaren eragin esparruan euskararen normalizazioak aurrera egiteko estrategiaren gauzapena zehazten duena. Bi planek sortuko dituzten gastuak arestian aipaturiko programan jasoko dira.

7.- Inbertsioa eta araua dira Administrazioek politika egiteko dituzten bide nagusiak. Orain arte, euskararen normalizazioari dagokionez, desorekatua izan da bien arteko erabilera. Hau da, apustu nabarmen bat egin da inbertsioaren alde arautzea maiz baztertuz. Orekatu beharko litzateke hori diru-baliabideak beste zeregin batzuetara libratzeko.

8.- Kontratazio irizpideak arauz zehaztu behar dira zorroztasun handiz euskara ez dakien langilerik ez kontratatzeko. Horrek diru asko libratuko luke gaur egun euskararen normalizazioaren alorrean gastatzen den kopururik altuena funtzionarioak euskalduntzen gastatzen baita. Gainera, erraztuko luke euskaraz funtzionatzeko data ezartzea eta hizkuntza-eskubideen urraketarekin bukatzeko jauzi handia ematea ahalbidetuko luke.

9.- Kultura eta euskal kulturaren artean orain arteko aurrekontuetan egon ohi den nahasketa gainditu beharrekoa da. Izan ere, euskal kulturaren manifestazio askok euskararen normalizazioaren alorrean aurkitzen dute diru-iturria kulturaren alorrean aurkitu beharrean. Erdaraz egiten den kultura, “kultura” kontsideratzen da, ez “erदारaren hegemoniaren aldeko inbertsio” eta euskaraz egiten dena ordea, euskararen normalizazioaren aldekoa denez, hizkuntza-politikaren iturrietan aurkitzen ditu baliabideak. Euskaraz egiten den kulturak bi iturritatik jaso beharko luke, kultura delako batetik, eta euskararen normalizazioan ezinbestekoa delako bastetik.

10.- Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak edozein administraziorekin konplizitatean oinarritutako lankidetzan lan egiteko duen borondate tinkoa adierazteko baliatu nahi du lan hau. Euskararen normalizazioa fenomeno politikoa eta soziala da eta ondorioz, ezinbestekoa da indar politiko eta sozialen artean elkarlana topatzea. Bihoa aurretik Kontseiluaren prestutasuna elkarlan horretarako.

2015eko aurrekontuari begirako proposamen zehatzak

Legebiltzarra

| | | | |
|----|------|---------------|-------------|
| 00 | | Legebiltzarra | 1.000.000 € |
| | 1111 | Legebiltzarra | |

Eusko Legebiltzarraren kasuan 3 norabide estrategikotan lan egitea komeni da. Alde batetik, bai legebiltzarkideen bai eta erabiltzaileen euskarazko funtzionamendua bermatzeko neurriak hartzea beharrezkoa da. Horretarako, bitarteko eraginkorrak ezarriko dira euskara oraindik ez dakiten legebiltzarkide horiei begira, bai eta langileei begira ere horiek edozein sailekoak izanda ere. Arreta berezia jarri beharko da lehen harrera egiten duten ertzainen kasuan. Langile horiei denei begira euskara klaseak eskainiko dira Legebiltzarrean bertan. Bestalde, euskara normalizatzeko zeregin guztiak plangintza batean jasoko dira, helburu eta epe zehatzak izango dituen plangintza batean, alegia.

| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
|--|------------|
| Legebiltzarkideen eta erabiltzaileen euskara hutsezko funtzionamendua bermatzeko bitarteko eraginkorrak jarri. | |
| Legebiltzarraren jarduna euskalduntzeko plangintza ezarri. | |
| Legebiltzarkideak euskalduntzeko ikastaroak Legebiltzarrean. | |

Lehendakaritza

| | | | |
|----|------|--|--------------|
| 01 | | Lehendakaritza | € 25.000.000 |
| | 1121 | Lehendakaritza. Egitura eta Laguntza | |
| | 4712 | Lehendakaritza euskalduntzeko programa | |

| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
|---|------------|
| Sailak burutzen dituen mota guztietako erosketa edo zerbitzu kontratazioetan hizkuntza-irizpideak ezarri. | Araua |
| Hedabideetan publizitate instituzionala jartzeko eta laguntzak eskaintzeko hizkuntza-irizpideak ezarri. | Araua |

Euskararen zehar-lerro izaera bermatzeko biderik eragingarriena lehendakariordetza bat sortzea da irizpide orokorretan adierazi dugun bezala. Eusko Jaurlaritzaren organigramako alderik gorenean kokatzea ezinbestekoa da sail guztietan eragiteko.

| | | | |
|--|------|------------------|--|
| | 1311 | Kanpo Harremanak | |
|--|------|------------------|--|

| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
|---|------------|
| Beren hizkuntzen normalizazio prozesuak burutzen ari diren nazio eta herriekiko harreman bidea esperientzien elkar trukeko. | |

Nazioarteari begira, munduan zehar garatzen diren normalizazio prozesuen segimendua eta ikerketa egitea funtsezko lana da gure prozesuaren eraginkortasuna handitu nahi badugu. Alor teknikoan zein politikoan beste nazio edo herri batzuekin indarrak batzea garrantzi handikoa da.

| | |
|------|------------------------------|
| 462I | Justizia eta Giza Eskubideak |
|------|------------------------------|

| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
|---|------------|
| Hizkuntza-eskubideen betetze mailaren segimendurako lan lerroa | |
| Hizkuntza-eskubideen alde lanean ari den Behatokiarekiko diru-sail izenduna | |
| Hizkuntza-eskubideen bermerako komunikazio hari iraunkorra, unibertsala zein sektorekako | |
| Hizkuntza-eskubideen urraketa salatzeko aukera arau bitartez eskaintzea pertsona juridikoei (enpresak, elkarteak, taldeak...) | Araua |

Hizkuntza-eskubideak giza-eskubideak diren neurrian haien betetze mailaren segimendu zorrotza egitea ezinbestekoa da. Horretarako hamarkada luzez lanean ari den “Hizkuntz eskubideen Behatokiarekin” lankidetzaz ahalbidetu behar da haren independentzia bermatuz. Bestalde, eskubideon betetzearen bermerako komunikazio lan iraunkorra egitea funtsezkoa da. Ikuspegi unibertsaletik nola sektorialetik ere segimendua estua egiteko bideak ezarri behar dira eskubideok bermatuko badira.

| | |
|------|------------------------|
| 54I4 | Berrikuntzarako Funtsa |
|------|------------------------|

| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
|--|------------|
| Euskalgintzaren eskaintza eta lan jarduna berritzeko eta eraginkortasuna handitzeko lan ildoak | |

Gizarteko alor guztietan da funtsezkoa berrikuntza. Euskalgintza osatzen duten erakunde eta enpresek ere badute alor horretan inbertitu beharra. Berrikuntzak eskatzen duen ahalegin ekonomikoa asumitu ezinezkoa da berez baldintza zailetan aritu behar duen erakunde eta enpresa askorentzat. Beraz, berrikuntza eta garapena bermatzeko diru-saila irekitzea funtsezkoa da.

| | |
|------|--|
| 47II | Euskararen normalizazioa. Lehenagoko hizkuntza-politika. |
| | |

Euskararen normalizazioak duen zehar-lerro izaera bermatzeko ezinbestekoa da Lehendakaritzan programa berri bat sortzea. Bertatik kudeatuko da normalizazioari dagokion dena eta esku-hartze zuzena izango du gainerako sail guztietan normalizazio prozesua orekatzeko helburuarekin, zehar-lerro izaera bermatzekoarekin eta hizkuntza-politika berri eta eragingarriaren ezaugarriak betetzen direla bermatzeko helburuarekin.

| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
|---|------------|
| Adierazle sistema sortu eta herritarren eskuetan jartzeko bidea eskaini. | |
| Euskararen normalizazioaren bidean ezarritako plangintzen ebaluazio sistema sortu eta erakunde independente bati zeregina eman. | |

| | |
|---|--|
| Euskararen sustapenari begirako diru-saila. | |
| Izendunak. | |
| Euskara toki entitateetan | |
| Euskararen sustapena | |
| Bestelako zerbitzuak | |
| Euskalgintza | |

Herri Administrazioa eta Justizia

| | | | |
|----|------|---|-------------|
| 02 | | Herri Administrazioa eta Justizia | € 7.000.000 |
| | 1213 | F. Publikoa, Langileen Hautaketa eta Prestakuntza | |

Justizia alorraren euskalduntzea beste sail batzuk izan duten garapenarekin alderatzen badugu berehala ohartuko gara nabarmen atzeratua dela. Langileak, euskarriak eta prozedurak euskalduntzea lehentasun handiko gaia da. Justizia alorrean hizkuntza-eskubideak urratzen direnean alboko kalte ondorioak oso larriak izan daitezke eta errealitate horrekin bukatu beharra dago. Horretarako, ezinbestekoa da langileen (epaileak eta fiskalak barne) euskalduntzea, kontratazio irizpideak, euskarrien euskalduntzea, zirkuituen sorrera plangintzen eragingarritasuna eta horiei denei sostengua emateko diru-inbertsioak eta arauen sorkuntza.

| | | | |
|--|------|--|--|
| | 4712 | Administrazio Publikoaren Hizkuntza Normalkuntza | |
|--|------|--|--|

| | |
|---|------------|
| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
| Justiziaren euskalduntzea programa sortu. | |

| | |
|--|------------|
| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
| Sailak burutzen dituen mota guztietako erosketa edo zerbitzu kontratazioetan hizkuntza-irizpideak ezarri | Araua |

Justizia Saila, Hezkuntza Sailarekin batera, euskalduntzeaz ari den programa berezitua izan duen saila dugu. Kasu honetan beraz, programa horren edukian zer sartu behar den proposatzea da zeregina.

| | | | |
|--|------|--|--|
| | 1215 | Berrikuntza eta Administrazio Elektronikoa | |
|--|------|--|--|

| | |
|---|------------|
| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
| Justizia alorreko euskarri digital guztiak euskaratzeko diru-saila | |
| Herriarrei helarazten zaizkien mezu elektronikoetan euskararen presentzia bermatu | |

| | | | |
|--|------|------------------------|--|
| | 1411 | Justizi Administrazioa | |
|--|------|------------------------|--|

Langileen euskalduntzea bizkortzea, kontratazio berrietarako hizkuntza-irizpideak ezartzea eta zirkuituak sortzea dira arnaguneetan hizkuntza-eskubideak erabat errespetatzearekin batera oinarrizko neurriak aurrera egiteko Justiziaren normalizazioan.

| | |
|--|------------|
| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
| Langileen euskalduntzea. | |
| Arnaguneetan aritzen diren epaitegien erabateko euskalduntzerako diru-saila | |
| Kontratazio irizpideak legez ezarri | Araua |
| Herritarren eskubideak bermatzeko zirkuituak sortzeko diru-saila | |
| Zirkuituen antolaketa dekretuz ezarri. | Araua |
| Plangintza berri eta eragingarria sortu | |
| Justizia Sailaren kanpo harremanak arautzeko hizkuntza-irizpideak legez ezarri | Araua |

Ekonomiaren garapena eta Lehiakortasuna

| | | |
|----|---|--------------|
| 03 | Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna | 10.000.000 € |
| | Saila euskalduntzeko programa sortu. | |

| | |
|--|------------|
| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
| Sailak burutzen dituen mota guztietako erosketa edo zerbitzu kontratazioetan hizkuntza-irizpideak ezarri | Araua |
| Teknologia berrien alorrean proiektu berriak sortzeko laguntza lerroa sortu | |

Ezin da hizkuntza bat normalizatu ez bada ekonomiaren alorrean bere presentzia normaltzen eta erabilera errazten. Alor sozioekonomikoan jokatzen dugu prozesuaren arrakasta eta, hala ere, urte askotan ahaztutako sektorea izan da. Hori dela eta, areagotu behar dira ahaleginak sektore honetan. Araua eta inbertsioa dira bidea horretarako gainerako sailetan bezalaxe.

| | |
|------|--|
| 5211 | Euskadi informazioaren gizarte planean |
|------|--|

Ekonomia alorreko euskarri digitaletan urria da oso euskararen presentzia. Inbertsioak egin behar dira espazioa irabazten joateko.

| | |
|---|------------|
| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
| Euskararen presentzia euskarri digitaletan areagotzeko diru-saila | |

| | |
|------|--|
| 7212 | Industria Garapena eta Ekintzaileen Laguntza |
|------|--|

| | |
|---|------------|
| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
| Publizitatean eta etiketetan euskararen presentzia bermatzeko legea sortu | Araua |

| | |
|--|-------|
| Kalitatearen parametroetan euskararen kudeaketa txertatu | |
| Alor sozioekonomikoaren euskalduntzea gidatzeko egitura sortu. Aholku batzordea sortu | |
| Sistema publikoaren kontratazioerako irizpideetan hizkuntza irizpideak legez ezarri. | Araua |
| Administrazioek homologatzen dituzten eta zerbitzu publikoa eskaintzen duten mota guztietako enpresek euskarazko zerbitzua bermatuko dute. | |
| Enpresetan euskararen erabilera handitzeko laguntzak: zerga hobariak, diru-laguntzak, aholkularitza eta beste. | |

| | |
|------|--------------------|
| 7612 | Barne Merkataritza |
|------|--------------------|

Euskararen normalizazioan egundoko garrantzia du barne merkataritzak. Izan ere, gizakion harremanen ehuneko handi bat salerosketen ingurumarian betetzen ditugu. Gaur egun, eskola bitartez, helduen euskalduntzearen bitartez edota familia transmisioaren bitartez lortzen ditugun euskaldunek alor sozioekonomikoaren eta bereziki merkataritzaren errealitate erdaldunarekin egiten dute topo. Horrek zuzenean eragiten du hizkuntza ohituretan. Beraz, euskaldunok gure hizkuntza iraungo badugu gizarte espazio berriak irabaztea ezinbestekoa izango da.

| | |
|--|------------|
| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
| Kontsumitzaile eta erabiltzaileen dekretua indarrean jarri, helburu eta epe zehatzekin, merkatal jardura oro barne bilduz eta zehapenak aurreikusiz. | Araua |
| Dekretuaren eskarietara egokitzeko diru-saila | |

Enplegua eta Gizarte-politikak

| | | |
|------|--------------------------------------|-------------|
| 04 | Enplegua eta Gizarte-politikak | 5.000.000 € |
| 3112 | Lana | |
| | Saila euskalduntzeko programa sortu. | |

| | |
|---|------------|
| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
| Sailak burutzen dituen mota guztietako erosketak edo zerbitzu kontratazioetan hizkuntza-irizpideak ezarri | Araua |

| | |
|---|------------|
| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
| Langile langabetuen hizkuntza-perfila jasoko da enpresen beharrak asetzeari begira. | |
| Langile langabetuek lana topatu bitartean doako euskara klaseetara bideratuko dira haien formakuntza hobetzeko. | |
| Lanbideren zerbitzua euskalduntzeko diru-saila | |
| Lanbideak eskaintzen dituen mota guztietako ikastaroak euskaraz eskaintzeko diru-saila | |

| | |
|------|-------------|
| 3122 | Inmigrazioa |
|------|-------------|

| | |
|--|------------|
| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
| Etorri berrientzako harrera plana eta doako euskara klaseak. | |

| | |
|------|-------------|
| 4312 | Etxebizitza |
|------|-------------|

Etxebizitza-politikak eragin handia du euskararen normalizazioaren alorrean bereziki arnaguneetan. Beraz, garrantzi handikoa da arnaguneetan egiten diren etxe-promozio berriek zer eragina izan dezaketen neurtzeko bideak jartzea. Horretarako, alde batetik, arnaguneak babesteko bideak arauz ezarri beharko dira eta bestetik, eragin kaltegarriak arintzeko diru-saila ireki beharra dago.

| | |
|--|------------|
| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
| Arnaguneen kasuan etxebizitza-politikak eragin dezakeen hizkuntza-impaktua neurtzeko bideak definituko dira dekretu bitartez | Araua |
| Etxebizitza-politikak sor dezakeen eragin negatiboa arintzeko diru-saila. | |

Hezkuntza eta Kultura

| | | |
|------|---|--------------|
| 06 | Hezkuntza eta Kultura | 50.000.000 € |
| 3222 | Gazteria | |
| 4715 | Saila euskalduntzeko programa sortu kulturean (Hezkuntzak badu dagoeneko) | |

| | |
|--|------------|
| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
| Sailak burutzen dituen mota guztietako erosketa edo zerbitzu kontratazioetan hizkuntza-irizpideak ezarri | Araua |

Hizkuntza-politikaren kasuan zehar-lerro izaera bermatzeko helburuz lehendakariordetza sortzea da proposamena. Beraz, sail honetan hezkuntza eta kultura bakarrik aztertuko dira.

| | |
|--|------------|
| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
| Diruz lagunduko den eskolaz kanpoko jardun oro euskaraz izan daitezen araua sortu. | |
| Ikastetxeek antolatutako eskolaz kanpoko jardun oro euskaraz izango da | |

| | |
|------|---------------------------------|
| 4211 | Hezkuntza. Egitura eta Laguntza |
|------|---------------------------------|

| | |
|--|------------|
| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
| Belaunaldi berriak oso osorik euskaldunak izan daitezen egin beharreko irakastereduen erreformarako diru-saila | |
| Hezkuntza legea sortu sistema berriari euskarri juridiko egokia eskaintzeko | Araua |
| Euskal curriculum hedatzeko diru-saila | |

| | |
|--|--|
| Irakasleriaren prestakuntzarako diru-saila | |
|--|--|

| | |
|------|--------------------------|
| 4221 | Haur eta Lehen Hezkuntza |
|------|--------------------------|

| | |
|--|------------|
| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
|--|------------|

| | |
|---|--|
| Haur hezkuntzan eskaintza erabat euskalduntzeko diru-saila. | |
|---|--|

| | |
|------|---|
| 4222 | Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa |
|------|---|

| | |
|--|------------|
| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
|--|------------|

| | |
|--|--|
| Lanbide Heziketaren eskaintza guttiz euskalduntzeko plangintza betetzeko diru-saila. | |
|--|--|

| | |
|------|------------------------------|
| 4223 | Unibertsitateko Irakaskuntza |
|------|------------------------------|

| | |
|--|------------|
| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
|--|------------|

| | |
|--|--|
| Unibertsitateen eskaintza guttiz euskalduntzeko plangintza betetzeko diru-saila. | |
|--|--|

| | |
|------|---------------------------------|
| 4224 | Araubide Bereziko Irakaskuntzak |
|------|---------------------------------|

| | |
|--|------------|
| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
|--|------------|

| | |
|--|--|
| Musika eskoletan eta bestelakoetan eskaintza osorik euskalduntzeko diru-saila. | |
|--|--|

| | |
|------|---------|
| 4512 | Kirolak |
|------|---------|

| | |
|--|------------|
| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
|--|------------|

| | |
|--|-------|
| Kirol jardueretan ahoz zein idatziz ematen diren mezuak euskarazkoak izateko hizkuntza-irizpideak legez ezarri | Araua |
|--|-------|

| | |
|---|--|
| 18 urtez beherakoekin lan egiten duten kirol-monitoreak euskalduntzeko inbertsio lerroa ireki | |
|---|--|

| | |
|--|-------|
| Laguntzak jasotzen dituzten kirol elkarteei 18 urtez beherakoekin lan eginez gero hizkuntza-irizpideak ezarri. Monitore euskaldunak edukitzea gutxienezkoa izango da | Araua |
|--|-------|

| | |
|---|-------|
| Kirol desberdinetako entrenatzaile izateko titulu ofiziala sortu eta euskararen ezagutza derrigorrezkoa izatea eta dagoeneko sortua denetan euskararen ezagutza derrigorrezkotzat jotzea. | Araua |
|---|-------|

| | |
|--|--|
| Kirolean euskara erabiltzeko sentsibilizazio kanpaina iraunkorra | |
|--|--|

| | |
|------|----------------------|
| 4513 | Kulturaren Sustapena |
|------|----------------------|

| | |
|--|------------|
| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
|--|------------|

| | |
|---|-------|
| Zine banatzaile eta erakusleei kuota sistema ezartzeko legea sortu. | Araua |
|---|-------|

| | |
|---|-------|
| Jardun kulturala diruz laguntzeko hizkuntza-irizpideak ezartzeko arautu | Araua |
|---|-------|

| | |
|--|-------|
| Administrazioak antolatutako edo sustatutako jardun kulturala 30 urtez beherakoei zuzenduz gero euskara hutsezkoa izateko arautu | Araua |
|--|-------|

| | |
|---|--|
| Euskarazko kultur sorkuntza bermatzeko diru-saila | |
|---|--|

| | |
|---|--|
| Euskarazko literaturgintza sustatzeko diru-saila | |
| Itzulpengintza sistema sendo eta iraunkorra sortzeko diru-saila | |

| | |
|------|--------------------|
| 4515 | Gizarte Hedabideak |
|------|--------------------|

| | |
|--|------------|
| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
| Euskara hutsezko hedabide espezializatuen sorrera laguntzeko ildoak | |
| Euskara hutsezkoak ez diren hedabideei kuota sistema ezartzeko araua sortu | Araua |
| Hedabideetan publizitate instituzionala jartzeko eta laguntzak eskaintzeko hizkuntza-irizpideak ezarri | Araua |
| Euskara hutsezko prentsaren bideragarritasuna bermatzeko ildoak | |
| Inbertsio lerroak formaziorako, berrikuntzarako eta hedabideen behatokitako | |

| | |
|------|----------|
| 5412 | Ikerketa |
|------|----------|

| | |
|--|------------|
| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
| Euskararen jabekuntza eraginkortzeko eta euskararen erabilera bermatzeko ikerketa lerrorako diru-saila | |

Segurtasuna

| | | |
|------|--------------------------------------|-------------|
| 07 | Segurtasuna | 5.000.000 € |
| 2223 | Ertzaintza Zerbitzuan | |
| | Saila euskalduntzeko programa sortu. | |

| | |
|--|------------|
| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
| Sailak burutzen dituen mota guztietako erosketa edo zerbitzu kontratazioetan hizkuntza-irizpideak ezarri | Araua |

Ertzaintza da, Osasun sistemarekin batera, hizkuntza-eskubideen urraketa dela eta salaketa gehien jasotzen duen saila. Beste sail batzuekin alderatuz bere normalizazio prozesua nabarmen atzeratua da eta gaur egun, oraindik ere, ez dago eskubide urraketekin bukatzeko nahikoa bermerik.

| | |
|--|------------|
| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
| Segurtasun sistemaren euskalduntzea programa sortu | |
| Arnasguneetan euskarazko zerbitzua bermatzeko plangintza | |
| Euskaraz bizi nahi duten herritarrei arreta bermatzeko zirkuituak sortu | |
| Kontratazio berrietan ertzain elebidunak kontratatuzko bideak legez ezarri | Araua |
| Ertzaintza euskalduntzeko plangintza eraginkortu epeak eta helburuak ezarri | |
| Ertzaintzaren akademian euskara klaseak ezarri ertzain berrien euskara maila bermatzeko. | |
| Lana euskaraz egin ahal izateko hizkuntza-irizpideak ezarri komunikazio alorrean nagusiki. | Araua |
| Sailak egiten dituen mota guztietako kontratazioetan hizkuntza-irizpideak sartu | Araua |

Osasuna

| | | | |
|----|------|--------------------------------------|--------------|
| 08 | | Osasuna | € 30.000.000 |
| | 4111 | Osasuna. Egitura eta Laguntza | |
| | | Saila euskalduntzeko programa sortu. | |

Osasun alorra da segurtasunekoarekin batera hizkuntza-eskubideen urraketa dela eta salaketa gehien jasotzen duen saila. Euskararen normalizazioak gizarte espazioak behar ditu erabiltzeko aukerak eskaintzeko. Osasun alorrean beraz, erabiltzeko aukerak nabarmen handitu behar ditugu. Gainera, kontuan hartu behar dugu hizkuntza-eskubideen urraketak alor honetan alboko kalte ondorio larriak izan ditzakeela osasuna baitago jokoan.

| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
|--|------------|
| Osakidetzako langile eta gaixo euskaldunak identifikatzeko bideak ezarri. | |
| Arnasguneetan herritarren atentzioa euskara hutsezkoa izan dadin plangintza berezitua. | |
| Herritar euskaldunak egoki artatzeko euskara hutsez funtzionatuko duen euskal zirkuitua sortu. | |
| Euskarri digitalak eta oro har, software oro euskaldundu (Osabide AP, Osabide Global, Global Clinic, Naia, Zaineri). | |
| Osasun sistemaren euskalduntzea epe eta helburu zehatzak ezarri. | |
| EHUrekin akordio markoa langile euskaldunak sortzeko etorkizuneko beharrak asetzeari begira. | |
| Osasun sistemaren kalitate parametroak neurtzeko unean euskarazko eskaintza funtsezkoa izatea dekretuz ezarri. | Araua |

| | | | |
|--|------|--------------------------------------|--|
| | 4112 | Osasun Finantzaketa eta Kontratazioa | |
|--|------|--------------------------------------|--|

Osasun sistemaren ahalmen ekonomikoa euskararen normalizazioaren alde jartzea tresna eraginkorra da hirugarrenek pausoak eman ditzaten. Hori dela eta, Osakidetzak egiten dituen mota guztietako kontratazioetan hizkuntza-irizpideak ezartzea eragingarria da oso.

| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
|--|------------|
| Osakidetzak egiten dituen kontratazioetan hizkuntza-irizpideak dekretuz ezarri. | Araua |
| Botiketako argibide orriak euskaraz eskaintzeko hizkuntza-irizpideak legez bermatu | Araua |

Ingurumena eta lurralde-politika

| | | | |
|----|------|--------------------------------------|-------------|
| 09 | | Ingurumena eta Lurralde-politika | 2.000.000 € |
| | 4313 | Lurralde Antolamendua | |
| | | Saila euskalduntzeko programa sortu. | |

Euskararen normalizazioak izan badu oso nabarmena den osagai geografikoa. Bestela esanda, lurralde ikuspegitik aztertu behar da normalizazio prozesua lekuan lekuko errealitate desberdinetara egokitzeko batetik, eta arnaguneen hedapena bermatzeko bestetik. Beraz, lurraldearen antolamenduaren ikuspuntutik zeregin handia dago hizkuntza-politika egokia abiatzeko unean.

| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
|---|------------|
| Arnaguneen legea sortuko da ingurune horiek hizkuntza aldetik babesteko. | Araua |
| Arnaguneetan kokatutako mota guztietako zerbitzu administratiboak euskaraz eskainiko dira | Araua |
| Udalaz gaindiko proiektuek hizkuntza inpaktua aztertzeke txostena aurkeztu beharko dute | |
| Etxebizitza-politika apartekoa izango dute arnaguneek hizkuntza irizpideak ezarri babes ofizialeko etxeak eskuratzeko unean | |
| Hizkuntza-politikan arnaguneok dituzten oztupoak gainditzea lehentasunezkoa izango da | |
| Ezagutza tasa 50-70 artean dituzten udalerrriak amankomunitatuko dira arnagune izatera ahalik eta denborarik laburrenean irits daitezten. Diru-sail bat irekiko da plangintza egokiak gara ditzaten | |
| Hiriburuetako plangintza bereziak garatzeko diru-saila | |

Lan harremanetarako Kontseilua

| | | |
|----|--|-------------|
| 51 | Lan Harremanetarako Kontseilua | 1.000.000 € |
| | Erakundea euskalduntzeko programa sortu. | |

| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
|---|------------|
| Sailak burutzen dituen mota guztietako erosketak edo zerbitzu kontratazioetan hizkuntza-irizpideak ezarri | Araua |

Lan Harremanetarako Kontseilua alor sozioekonomikoan parte hartzen duten eragileek adostasun bideak topatzeko gunea dute. Ondorioz, euskararen normalizazioak lan munduan ezartzen dizkigun erronkak aztertzeke eta adostasun estrategikoak topatzeko tresna interesgarria da Lan Harremanetarako Kontseilua.

| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
|--|------------|
| Alor sozioekonomikoan euskararen normalizazioak aurrera egiteko eta euskaraz lan egiteko eskubidea egikaritzeko beharrezko dituen eragileen inplikazioerako batzordea Euskalgintzako eragile inplikatuak irekia. | |

HABE

| | | |
|----|------|--------------|
| 44 | HABE | 50.000.000 € |
|----|------|--------------|

| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
|---|------------|
| Sailak burutzen dituen mota guztietako erosketak edo zerbitzu kontratazioetan hizkuntza-irizpideak ezarri | Araua |

Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea sektore estrategikoa da euskararen normalizaziorako. Huts galanta litzateke ahalegin guztia belaunaldi berrien bizkar uztea. Horientzat helduak erreferente dira eta ondorioz, helduon portaerak, jarrerak eta ahaleginak eredu garriak dira belaunaldi berrientzat. Helduona ez da belaunaldi galdua, helduok gure esku dugu balantza euskararen aldera desorekatzeko aukera. Zentzu horretan, sektorearen eragingarritasuna areagotzeari begira neurriak hartu behar dira.

| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
|---|------------|
| Euskaltegietan aritzen diren irakasleen lan baldintzak hezkuntzakoekin parekatu | |
| Irakasleen prestakuntzarako diru-saila | |
| Euskaltegien egokitzapenarako diru-saila | |
| Euskara ikastearen doakotasuna bermatzeko beka sistema unibertsala eskolan ikasteko aukerarik izan ez dutenentzat | |
| Helduen euskalduntzeak Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian pairatu behar duen egoera latza arintzeari begirako diru-saila | |
| Helduak euskara ikastera animatzeko komunikazio kanpaina iraunkorra | |
| Modulazioetan pausoak ematea ahalbidetzeko diru-saila | |

HAEE

| | | | |
|----|------|--|--------------|
| 43 | | HAEE | 18.000.000 € |
| | 4714 | Euskalduntzea eta hizkuntza normalkuntza | |

| Norabide estrategikoa. Neurri zehatzak | Zenbatekoa |
|--|------------|
| Sailak burutzen dituen mota guztietako erosketa edo zerbitzu kontratazioetan hizkuntza-irizpideak ezarri | Araua |

Administrazio publikoan aritzen diren langileen euskalduntzea areagotu beharra dago. Une honetan gertatzen diren ez gainditze tasa altuak txikitu behar dira eta areagotu derrigortasun data duten lanpostuen kopurua lanpostu guztietara dagokiena ezarri.

Bestalde, hizkuntza eskakizunak goratu behar dira oinarriko perfilek eragiten duten adierazkortasun falta gainditzeko.

Oharrak:

1. Koadro makroa. Hona hemen sailka nola geldituko litzatekeen gastu banaketa.

| | |
|--------------------------------|-------------|
| 2015 | |
| Legebiltzarra | 1.000.000 |
| Lehendakaritza | 25.000.000 |
| Justizia | 7.000.000 |
| Ekonomiaren garapena | 10.000.000 |
| Enplegua eta gizarte-politikak | 5.000.000 |
| Hezkuntza-Kultura | 50.000.000 |
| Segurtasuna | 5.000.000 |
| Osasuna | 30.000.000 |
| Ingurumena eta lurraldea | 2.000.000 |
| Lan Harremanetarako Kontseilua | 1.000.000 |
| HABE | 50.000.000 |
| HAEE | 18.000.000 |
| | |
| Osotara | 204.000.000 |

2. Orain arte HPS izenez ezagutu dena orain lehendakaritzaorde bihurturik agertzen zaigu. Beraz, hari dagozkion diru-sailak Lehendakaritzan agertzen dira, Hezkuntza eta kulturarekin batera agertu beharrean
3. HPSren diru-sailik handiena HABEri egiten dion diru-transferentzia da (29.848.438 €). Beraz, proposamena ulergarriagoa izan dadin HABEk du bere aurrekontu-proposamen osoa eta Hizkuntza-politikak ez du bere baitan transferentzia hori.